



Aurreko asteburuan
ekin zioten kirol
ikasturte berriari

2015eko urriaren 23a, 457 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

ESKOLA KIROLA ANDOAINEN

Pilota eta herri kirolak Arraten, Mikel Goñiren parte hartzearekin

Pilota jaialdia Arraten, larunbat honetan arratsaldeko 17:30ean hasita.

Aspaldi utzi zion elite mailari Mikel Goñi pilotari nafarrak, baina han eta hemen erakustaldi ugari eskaintzen jarraitzen du. Bada urteekin galdu ez duen dohaia, zaletuekiko pizten duen erakarmena. Adiskidetasunezko jaialdiak antolatzeko garaian, amu ona da Goñiren parte hartzea iragartzea. Larunbat honetan euskal preso politikoen dispartzioaren aurkako jaialdia antolatu dute Arrate pilotalekuan. Hamar euroren truke pilota partidak, herri kirol desafioa eta haurrentzat ikuskizunak aukeran izango dira.



Mikel Goñi pilotaria Arrate pilotalekuan arituko da, larunbat honetan.

Jaialdiaren hasieran Mikel Goñi kantxara aterako da Andoaingo pilotariekin batera. Bikoteka, nor baino nor aritu-

ko dira Aritz Eskudero-Imanol Usandizaga eta Mikel Goñi-Unai Etxeberria. Horren ondoren, Mikel Goñi eta Unai Mai-

Bikoteka, nor baino nor arituko dira Aritz Eskudero-Imanol Usandizaga eta Mikel Goñi-Unai Etxeberria pilotariak

zaren arteko "apostu mundiala" iragarri dute. Denbora jakin batean ea ingudea zeinek gehiagotan altxa, horixe izango da desafioa.

Kirol jaialdiari amaiera emateko Andoain eta Hernani herrien arteko herri kirol desafioa jokatu dute.

Ez da kirola arratsaldeko eskaintza bakarra izango. Haur txokoa egokituko dute, baita puzgarriak ere. Musika emanaldiez eta taloaz gozatzeko aukerak ere ez dira faltako.

Bizikidetza programa Urnietan

Ostegun honetan Urnietako Udalak bizikidetza programaren berri emango du jendaurrean. Ekitaldi irekia izango da Lekaiokoa, zein an herriarren iritziak bildu nahi dituzten.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Julen Loitegi txapeldun

Mexikon Munduko kopan irabazle izan da. Garaipen handia urnietarrarentzat.

[KIROLA 10. ORRIALDEA]

Urnietako eskubaloitaldeak

Infantil mailatik hasi eta senior mailaraino, denboraldi honetako taldeen argazkiak eta kideak ikusgai.

[KIROLA 7-9. ORRIALDEA]

Odol emaileen bilkura

Andoaingo, Urnietako eta eskualdeko odol-emaileek ekitaldia eta bazkaria egingo dituzte igande honetan.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Laguntza eskola, Caritasen eskutik

Hamabost andoaindar bolondres gisa lanean ari dira, irakasle modura.

Bazkardon Caritasen duen biltegian eskola modukoa egokitu dute, hogeita zortzi haur eta gaztetxoren heziketan lagungarria den errefortzua eskaintzeko. Asteazken egunetan irekitzen dute egoitza, eta haur bakoitzak bi egunetan etortzeko

konpromisoa hartu du. Arratsaldeko ogitartekoa jan ostean, ordu beteko saioari ekiten diote. Irakasle bakoitzak ume bakar batekin edo birekin jarduten du, hezkuntza aldetik dituen gabeziak zuzentze aldera.

"Laguntza eskola eta ohituraren sormena" izeneko zerbitzua jarri zuen iaz Caritas elkarteak Andoainen, eta segida eman dio aurtengoan ere.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]




Irakasleetako batzuk Caritas elkarteak Bazkardon egokitu duen eskolan.

Haur antzerkia

Azken Eguzkilorea


Urriak 25, igandea
Sarobe AEG
17:30etan
Sarrera 3 €

HITZ-GEZIDUNAK




SUDOKU

9 x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere



5X5

Ezker eskuin eta goitik behera,
zenbaki bakoitzean hitz bera
aterako zaizu




1. Ahul, motel.
2. Larrua.
3. Nasak, moilak.
4. Atsegina. 5. Latz, zakar.

HIEROGLIFIKOA



Zer oparitu zizuten?

ERANTZUNAK



Urnietako bizikidetza programaren aurkezpena

Urnietako bizikidetza programa aurkezteko “Bake-pintxo” izeneko jarduera antolatu du Udalak, ostegun honetarako. Ekitaldia irekia da, herritar guztiei irekia.

Are gehiago, ekitaldi horretan herritarren iritziak eta ideiak jaso nahi dituzte.

Ekitaldia ostegun honetan izango da Lekaion, iluntzeko 19:00etan hasita.

Odol emaileen bilkura



laz, omenaldia jaso zuten urnietar batzuk.

Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak Beterri-Buruntzako odol-emaila garrantzitsuenak gogoan izango ditu igande honetan, Oianumen egingo duten bazkarian. Batetik, insignia, diploma eta garaikurrak emango dizkiete, 25, 40 eta 50 aldiz odola eman duten emaleei. Kopuru horretatik gora eman dutenak omenduko dituzte ere. Bertan bilduko dira Urnieta, Andoain, Hernani, Lasarte-

Oria, Usurbil edota Aizton-
doko odol-emaileak.

Omenduko dituzten urnietarrak
Begoña Estevez Icuza, Fran-
cisca M^a Navas Izquierdo,
Juan M^a Jauregi Sorondo eta
Ana M^a Pascual Centeno.

Egitaraua, igande honetan:

13:15 Harrera.

13:30 Domina, diploma eta garaikurren banaketa.

14:30 Bazkaria.

“Azken eguzkiloa” haur ikuskizuna igande honetan

Patata tropikala konpainiaren ikuskizun berria arte jarduera ezberdinen uztarketa da: txo-txongiloak, antzerkia, maskarak... hori guztia irudimena eta umorea erabiliz. Ikuskitzuna honetan mitologia da ardatz nagusia. Kattalin haurra baserritik kalera jaitsiko da, eta bere lagun guztiak desagertu direla konturatuko da. Mari topatuko du eta bere eskutik ere Basajaun, Tartalo, Galtzagorri, Gaueko...



ko 17:30ean hasiko da ikuskizuna. Sarreraren prezioa 3 euroko da.

Matrikulazioa Ludotekan

Urnietako Udal Ludotekan ikasturte honetarako izena emateko epea zabaldu dute, urriaren 29raino. Matrikularen prezioa hamar eurokoa izango da eta arduradunek azaldu dutenez, “jolas librea, jolas kooperatiboa eta tradizionala, kantuak, jostailuak, tailer sortzaileak eta irakurketak topatuko dituzu ludo-

tekan. Gainera, hilero jar-
duera bereziren bat, festa
bat edo merienda bat egiten
da”.

Zerbitzua zabalik izango da Arantzubiko eskola zaharrean, astelehenetik ostegunera arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

943 00 98 50

ludoteka@urnieta.eus

“UDALERRI AKTIBOAK” JAURLARITZAREN OSASUN PLANAREN BAITAN

Jarduera fisikoa sustatzeko jardunaldia

Jarduera fisikoaren sustapena osasun zerbitzuen, Udal gizarte zerbitzuen eta erakunde ezberdinen elkarlanetik egin daiteke. Adituek behintzat koordina-

zio lanari ezinbesteko garrantzia ematen diote. Jarduera fisikoaren beharraz eta hura sustatzearen garrantziaz jardungo dute ostiral honetan, Saroben.

Ostiralean goiz osoan zehar osasun publikoan, udal erakundee-tan edota enpresa munduan garatu dituzten egitasmo eta esperientzien berri jaso eta partekatze-ko aukera izango da. Jarduera fisikoak sustatzea ezinbestekoa bilakatu da, bizitza osasuntsua bermatze aldera. Horrek gizarte mailako onura ugari dakar, eta baita osasun alorrean ere. Gizakiarentzat, etorkizunerako inbertsiorik onena bizitza osasuntsua eramatea delako. Jaur-laritzako Hezkuntza eta Osasun sailek garatu nahi duten Osa-sun planaren helburuen artean dago gizarte aktiboago bat sor-tzea. Eta hori herriz herri gau-zatzeko, tokiko eragileak senti-sibilizatu nahi dituzte modu koor-dinatuan lan egin dezaten.

Tomas Plazaola Osasun saileko ordezkariak transbertsalitate hizpide izan zuen, "gaur egun bakarrik ezin delako horrelako ekimen bat aurrera eraman. Udalak, administrazio orokorra,... denen parte hartzea beharrezkoa da. Udaleko gizarte zerbitzuen lantsailak giltzarri dira zeregin honetan, adinekoen egoera ondoen eza-gutzen dutelako".

Carmen Blanco Urnietako osasun etxeko arduradunak ekimenarekin bat egiteko dei egin zien urnietarrei, "adinean gora doazen pertsonentzat jar-duera fisikoak lantzea garrantzitsua da, gizarteratzeko apro-posa".

Mikel Pagola alkateak bat egin zuen hitz horiekin, "adin batera iristean pertsona batzuk bakarrik senti daitezke, eta jar-duera fisikoaren bitartez taldeetan integratzen has daitezke berriro".

ADINEKOAK, GAZTEAK, LANGILEAK...

Jardunaldi hauetan ere beste alor batzuri ere erreparatuko diote, hala nola gazteei edota lan arloari. Azken horri dago-



Tomas Plazaola Tolosaldea-Buruntzaldea eremuko Osasun Publikoko arduraduna, Mikel Pagola Urnietako alkatea eta Carmen Blanco Urnietako-Hernani herrietako osasun saileko arduraduna "Udalerrri aktiboak" jardunaldiaren aurkezpenean.

"Gabezia bat badugu, enpresa bat segurua dela esaten dugunean. Segurua behar du izan bai, baina baita osasungarria ere"
Tomas Plazaola

"Adinean gora doazen pertsonentzat jarduera fisikoak lantzea garrantzitsua da, gizarteratzeko aproposa"

Carmen Blanco

"Adin batera iristean pertsona batzuk bakarrik senti daitezke, eta jarduera fisikoaren bitartez taldeetan integratzen has daitezke berriro"

Mikel Pagola

kionez, Urnietako jardunaldietan CAF enpresaren eredia ezagutzeko aukera izango da. Plazaolak hiru gabezia nagusiak zerrendatu zituen: "elika-dura kaskarra, jarduera fisiko eza eta tabakoa erretzea. Ohiturak aldatu behar dira. Gabezia bat badugu, enpresa bat segurua dela esaten dugunean. Segurua behar du izan bai, baina baita osasungarria ere".

JARDUNALDIA HIRU ATALETAN

“UDALERRI AKTIBOAK” JARDUNALDIAK
URRIAK 23, OSTIRALA.
URNIETA, SAROBE. 08:30-14:30.

LEHEN ATALA

Osasunaren determinatzaileak jardue-ra fisikoak egiteko, jarduera fisikoaren onurak eta sedentarismoaren kalteak, Mugiment eta bere estrate-giak, ariketak.

BIGARREN ATALA

Elkarlana jarduera fisikoak sustatzeko, mahai-ingurua, herri mailako esku-hartzeak, Hernaniko Tipi-Tapa,

jarduera fisikoak preskribatzea lehen mailako arreta zerbitzuan, ohitura jasangarriak eskuratzea lan esparruan, alkoholaren prebentzioa eta jarduera fisikoa eskola munduan.

HIRUGARREN ATALA

Herriko sareak sortu jarduera fisikoa sustatzeko esku hartzeak lantzeko, eztabaida eta bateratze lanak.

Jardunaldiak irekiak dira, eta aurkezenak batz beste 15-20 minutukoak dira. Jardunaldian zehar aztergai zehatzak entzuteko aukera eskaniko dute.

Zanpatuz taldearen irteera



Urnietako Zanpatuz mendi taldeak egun osoko irteera egingo du datorren urriaren 31rako, Saioa mendira. Irteera ordua goizeko 07:30ean izango da, Matxoko bus geltokitik, eta itzulera, iluntzeko 18:30ak aldera.

Saioa Baztan eskualdeko mendi garaiena eta Pirinioetako behatoki ezin hobea. Belate mendatean hasiko da irteera, 870 metrora, eta Saioara bidean Azkenatz (1.171 m.) eta Okolin (1.352 m.) gailurrak igoko dira.

Antolatzaileen esanetan samurra da ibilbidea: "Bi ordu eta erdikoa da. Ez dauka aldapa handirik, eta bide gehientsuena belaze gainean egin behar da".

IBILALDIA ETA GERO, BAZKARIA EUGI HERRIAN

Ibilbidea Artesiaga mendetik gertu amaituko da, eta han autobusa izango da zain, Eugi herrira bazkaltzera joateko. Bazkaria Quinto Real jatetxean izango da, Fernando Goñi pilotari ohia-rena. Menua mamitsua da mendi buelta egin ondorenerako: babarrun gorriak, orein haragi egosia, postrea, edariak eta kafea. Itzulera 17:00ak aldera izango da, Urnietara 18:30ak aldera iristeko.

IZENA EMATEKO AUKERA ASTEBURU HONETAN

Xauxar, Kantoi eta Gurian daude izena emateko zerrendak. Urriaren 25a izango da azken eguna. Ordainketa izen-ematearekin batera egin behar da: autobusa 10 eta bazkaria 20 euro. Biak egin nahi dituenak 30 euro. Mendira joan nahi ez duenak bazkaltzera bakarrik joateko aukera izango du, bere autoan hurbiltzen bada, 20 euroren truke. Mendira bai, baina jatetxera joan nahi ez duenak ere bere kabuz bazkaltzeko aukera izango du. Kasu horretan autobusaren 10 euro bakarrik ordaindu beharko lituzke.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Garbiketa auzolanean

Postontzia: Burrumba eta Ezuzki

Beste behin ere, bosgarrenez jarraian, Andoaingo erdigunetik igarotzen den Oria ibaiaren ibai bazterrak auzolanean garbitzera dei egiten diegu herritarrei. Auzolan honen helburu nagusiak honakoak dira:

- Auzolanaren balioa aldarrikatzea hainbat egoera edo arazori irtenbidea emateko bide gisa baita, herritarrok gustuko ez ditugun gauzak aldatzeko dugun gaitasun eta ahalmenaren adierazgarri.
- Herritarrok osasuna, ingurumena-ekin dugun ardura adierazi, hala nola ingurumenarekiko kontzientzia-zio naiz sentsibilizazioa bultzatu, bizi kalitatea hobetzeko helburuz.
- Instituzioei (Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundia, Ur Partzuergoa eta Udalak) eskatzea, exijitzea, dagozkien ardurak bere gain hartzea eta behingoz Andoainen ere, ibaira ur kutsatua isurtzeari uztea.

Aldaketarik ez, hobekuntzarik ez

Zoritarrez, iaz egin genuen azterketa eta diagnostikotik ez dago aldaketarik. Beraz, andoaindarron erdiak gutxienez, sortzen ditugun ur zikinak eta industriak sortzen dituenaren erdia baino gehiagok Oria eta Leitzarari ibaiak zikintzen jarraitzen dute. Hau gaia bideratzen duen 91/271/EEE zuzentarauaren aurka doa, zeinaren ondorioz, 2000 biztanletik gora dituzten herrien ur-beltzak hodiratutak eta araztuak izan behar zuten 2005 ingururako. Eta badi-rudi luzerako dugula. Izan ere, Eusko Jaurilaritzak 2013ko irailean, parlamentariet eginiko galdera baten ondorioz egin zuen txostenean, Ziako aldean egin beharreko lanak (kolektorea eraiki...) 2021erako programatuak dau-dela adierazten du, Europako arau-diarekiko 15 urteko atzerapenarekin. Baina are xelebreagoa eta larriago da Leitzarango ur-beltzekiko egoera: ez da inon agertzen horko lanik eta Aldundiaren arabera, lan horiek eginak daudelako omen. Egun Leitzara-nera etxeetatik zuzenean isurtzen ari gara ur-beltzak, begiratu besterik ez dago.

Beraz, berriz ere diogu, lan handia dute instituzio ezberdinek eta bereziki Eusko Jaurilaritzak. Lehentasun izan behar zuenak duela urte asko utzi zion izateari, agenda politikoetan behintzat. Eta horrek galdera batzuk egitera bultzatzen gaitu: non geratzen da "kutsatzen duenak ordaindu egin behar du" esamolde hori? Nori ordainarazi behar diogu? Ibarretxe, Lopez eta Urkulluri Jaurilaritzako arduradun nagusi gisa? Horrelako lanek herritarren bizi kalitatearen hobekuntza dakarte. Gizar-tearen hobekuntzaren adierazle dira, bestalde.

Dei egiten diogu beraz herritar oro-ri urriaren 31rako antolatu dugun auzolanean parte hartzera. 15:30ean elkartzeko gara Allurralde kiroldegia-ren atarian. Amaitzean partaideei mokadutxo bat eskainiko diegu.

ANDOAINGO CARITAS ELKARTEAREN EKIMENA

Laguntza eskola, beharrean direnei

"Laguntza eskola eta ohituren sormena" izeneko zerbitzua jarri zuen iaz Caritas elkarteak Andoainen, eta segida eman dio aurtengoan ere. Elkartera laguntza



Jon Garcia, Mariage Audicana, Maitena Aseginolaza, Mariasun Arruabarrena eta Beatriz Gomez. Eserita: Betariz Costa, Iker Iriondo eta Anne Herrero.

Zer dela eta ikusi duzue eskola sortzeko beharra?

Beatriz Amondarain: Caritasera normalean hurbiltzen diren Andoaingo familiekin tratatu zuzena eduki ohi dugu eta denboraren poderioz, gero eta ezagunak egiten zaizkigu. Azken urtetan, ohartuta gaude familia horietako haur askok badi-tuztela zenbait gabezia, ikasketa ohirutekin, autoestimarekin edota ikasketa porrotarekin lotuta daudenak. Konparazio batera, ez da harritzekoa horietako askok etxean liburuak irakurtzeko joerarik ez edukitzea; irakurtzeko ere zailtasunak dauzkate. Gainera, gurasoek ez dute ardurarik hartzen arlo horretan.

Zein da, beraz, eskolaren helburua?

B.A. Lehen-lehenik esango nuke bere helburua ez dela ezagutza gehiago transmititzea. Pentsatu beharra dago euren ikastetxeetan nahiko lanketa egiten dela alde horretatik. Geure egitasmoa beste bidetik doa: ikasketa ohitura sortzea ikaslearengan, ikasketaren bitartez autoestima haztea berarengan, gurasoek beren seme

edo alabaren heziketa balora dezaten eta inplika daitezen zeregin horretan, ikasle horrek bere ikastetxean integrazio erreala bizi dezan...

Helburuak katean doaz, eta azken batean, lortu nahi da familia osoak hezkuntzari garrantzia eman diezaion, ikus dezan motibatuta dagoen haur hori ikasketetan saiatzen bada eta emaitza onak lortzen badi-tu, bere garapen pertsonala ir-tengo dela irabazten, eta, gainera etorkizunean baliabide gehiago edukiko dituela eskura txirotasun egoetatik urruntzen lagun diezaioketenak.

Andoaingo ikastetxeekin egon al zarete?

B.A. Hasiera hasieratik jakin-razi genien zein zen geure egitasmoa, eta primeran erantzun dute. Euren ikastetxeko ikasleak dira geuregana etortzen direnak, eta beharrezkoa da etengabeko harremana edukitzea, elkarlanean jarduteko.

Zein dira eskolaren ezaugarriak?

B.A. Bazkardon Caritasetik daukan biltegian kokatu dugu eskolaren egoitza. Hogeita zortzi bat gaztetxoek eman dute ize-

eske azaldu ohi diren familien haurrei bideratzen zaie egitasmoa. Beatriz Amondarain ekimenaren koordinatzaileak azaldu dizkigu bere xehetasunak.



Viki Castro, Mari Jose Arsuaga, Bea Amondarain eta Sebas Herrero. Eserita: Igone San Sebastian, Mari Coro Agirre eta Naiara Ibarrola. Rosa Vera falta da argazkian.

na oraingoz, sei urtetik hamairu-hamalau urte bitartekoek. Aste-lau egunetan irekitzen dugu egoitza, eta haur bakoitzak bi egunetan etortzeko konpromisoa hartu du. 16:30ak aldera agertzen dira, eta arratsaldeko ogitartekoa jan ostean, ordu beteko saioari ekiten diogu.

Boluntario ugari osatzen dute zuen eskola.

B.A. Oso harrera polita eduki dugu Andoaingo herritarren aldetik, behin deialdi publikoa eginda. Hamabost lagunetik gora animatu dira, musutruk, eskola honetan parte hartzeko. Ikas-turte osorako konpromisua hartu dute, eta benetan estimatze-koa da erakusten duten eskuza-baltasuna. Nahiko heterogeneoa da taldea, eta denetatik topa de-zakegu: irakasleak, irakasle jubila-tuak, gizarte integrazioarekin lotutako magisteritzan dabil-tzan ikasleak, moja bat, etxeko an-dreak... Euskaraz emateko gaita-suna dute gehienek, eta hori ere azpimarratzekoa da.

Eskolak nahiko pertsonalizatuak izango dira, hainbeste irakasle izanik...

OLAZABALEN BIDEA

Olazabalen Bidea saria abenduaren 10ean ospatuko da, eta oraindik erabakitzeke dago ekitaldi horretan herriko zein pertsona edo elkarteak izango den saritua. Gogoratu, herrian urtean zehar Andoaingo herriaren eta hertako herritarren ongizatearen alde lan egin duen pertsona edo elkarteari esker ona agertzeko sortu zela Olazabal Saria.

Caritasetik deialdia zabaldu du, herritarrek izan daitezkeen hautagaien proposatzaileak. Azaroaren 2a baino lehenago aurkeztu beharko dira proposamenak, horretarako arrazoiak azalduz. Horretarako, Zumea kaleko egoitzan dagoen postontzira jo daiteke, edo eta caritasandoain@yahoo.com helbide elektronikora.

B.A. Halaxe da, irakasle edo boluntario bakoitzak ume bakoitza batekin edo nirekin jarduten du. Horrek ahalbidetzen digu ikaslearen kasuistika aztertutako eta erantzunak gizabanaka eman ditzagun. Azken batean, gertu-gertuko tratua, konfiantzazkoa sortzen da boluntarioen eta gaztetxoaren artean.

AUZOZ AUZOKO BILERAK ANDOAINEN

Sorabilla eta Bordaberriko auzokideen eskaerak

Udalak auzoz auzo antolatutuen bileren artean Sorabillakoa luzea bezain interesgarria izan zen. Sorabillako biztanleei zuzenean eragiten dizkieten gaiak jorratu ziren nagusiki, baina Andoain osoari dagozkionekin ere eztabaida bizia piztu zen. **Ana Carrerek** eta **Jon Zuluetak** hartu zuten hitza, Udal gobernu taldearen izenean 2015-2019 legegintzaldirako ildo nagusiak azaltzeko. Ondoren, bizilagunei kexak, proposamenak eta galderak egiteko unea iritsi zitzairen eta hauek ondo baino hobeto baliatu zuten aukera hori. **Sorabilla-Errortagaitz** izeneko elkarteak urteak darama lanean auzoko ongizatearen alde, eta hori nabaritu zen bileran, auzotarrek gaiak nahiko landuta azaldu baitzituzten.

Azken urteetan, tarteka, usaitu daitekeen kiratsa izan zen ika-mika eragin zuen gaitetako bat; pausoak eman dira Udalaren aldetik usainaren jatorria detektatzeko eta bere osagaiak zehazteko, baina auzotarrek neurria zehatzak eskatu zituzten halako isurketarik berriro gerta ez daitezen.

Sorabilla auzoko landa bideen egoera kaskarrak hitz egiteko ere denbora dezente hartu zuten udal ordezkariak zein bizilagunek. Aldi berean, Sorabillako eliza inguruko bizilagunak plaza deskuidatuta sartzen diren trailerrekin eta eragiten dituzten txikizioengatik kexu agertu ziren.

Bordaberriko etxe taldeko auzotarrek bi gai azaldu zituzten



Sorabillan aurreko astean egin zuten bilera.

bileran: auzoa eta herria batzen duen Oria ibai ondoko oinezko bidea hondatuta dagoela, eta, hondakin guztiak biltzeko edukiontzi bakarra dutela.

Gai guztien artean, N1 errepideak tarte luzeena hartu zuen. Auzotar batek adierazi zuen N1-aren arazo historikoa herri osoaren egiturazko arazotzat hartu behar dela. Konponbidea emateko garaia badela erantsi zuen; bide batez, Udalak 50 neurri horietan N1 ez sartu izanagatik kexa agertu zuen. Irundik Beasain bitarte, Andoain da zarataren aurkako pantailarik ezarri ez duten leku bakarra; alde horretatik, Udal ordezkariak zein bizilagunek bat egin zuten hutsune horri serio heldu eta Al-
dundia estutzen jarraitzeko.

PARTE HARTZEA UDAL GAIETAN

Udal gaietan parte hartzearen inguruko iritzi eta gogoetak ere hizpide izan ziren bileran. Sorabillako auzo arazoak direla eta, bertako elkarteetan urteak dara-

man bizilagun batek aitortu zuen azken urteetan asko hobetu dela udal informazioa, eta horretan asko lagundu duela udalaren eta bizilagunen arteko harremanak bideratzeko jarri izan diren parte hartze prozesuak; nolana ere, harremana oraindik zuzenagoa eta gardenagoa izan daitekeela gaineratu zuen. Gobernuordezkariak baita bileran parte hartu zuen **Olga Hernandez** oposizioko zinegotziak sail ezberdinetako batzarretara eta plenoetara azaltzeko gonbitea luzatu zieten bizilagunei. Horietako batek, ordea, plenoak herritarrentzat ez zirela oso motibagarriak egiten erantzun zien, maiz tramite hutseko ekitaldiak izatera mugatzen direlako.

Beste zenbait gai jorratu ziren bileran horretan: bosgarren edukiontzia, Andoain eta Villabona-Zizurkil herriak batuko litzuzkeen bidegorria, gune estaliak jartzeari herrian... luze jo zuen bilerak.



OLGA HERNANDEZ # ANDOAIN

*Ganemos alderdiko zinegotzia

Ikasten

Udalak andoaindarren iritzia jasotzeko bi asteetan jarraian auzoz auzo deitu dituen bileren harira, Aiurritik iritzi artikulua osatzeko eskatu zidatenean, harridura sentitu nuen baina eskerrak eman nahi dizkiet bileretara joan izanaren arrazoiak azaltzeko aukera ematen didatelako.

Ganemos-Andoain-Irabazi alderdian herritarren iritzia ezagutzeko interes handia dugu. Izan ere, ekainaren 13ko kargu hartze ekitaldiaren aurretik geuk ere bilera ireki bat deitu genuen, eta gure asmoa bilera gehiago antolatzen jarraitzea da.

Nire asmoa bizilagunen kexa, kezka eta ekimenak ezagutzea zen, eta zergatik ez esan, nire herria hobeto ezagutzea ere. Era berean, niri zuzendutako galderei erantzuteko prest nengoen, baina hori soilik nire auzoko bilera amaitu eta gero gertatu zen. Alkateak harridura agertu zuen lehen egunean, ni han ikustean. Bilera guztietara agertzeko asmoa azaldu nion eta ez zuen inolako arazorik izan. Are gehiago, azken bileretan herritarren aurrean aurkeztzen ninduen zeren eta normala da herritar guztiek ni ez ezagutzea.

Basteron egin zuten lehen bileran bizilagun batzuk neronek ezagutzen ez nuen arazoa hizpide izan zuten. Gai hori bera Udal batzorde batean aztertu zen, eta batzorde hartara bertan bizilagun batzuek adierazitako iritzia eraman nuen.

“Nire asmoa bizilagunen kexa, kezka eta ekimenak ezagutzea zen, eta zergatik ez esan, nire herria hobeto ezagutzea ere”

Bileretan ez dut ia parte hartzerik izan, batez ere bizilagunak entzutera joan naitzelako. Nire etxe ondoko bizilaguna argiteria eskasagatik kexu agertu zenean, bizilagun gehiago ez zeudela ikusita, babesa eskaini gabe ezin nintzen isildu. Arrazoi osoa duelako, metro bateko distantziara egon arte ez duzulako jakiten norekin gurutzatzen zaren.

Interesgarria izan da ikustea nola hainbat kexa auzo guztietan errepikatzen diren. Oso interesgarria ere herritarrek ideiak ematera eta ekarpenak egitera etortzen direla ikustea. Ez datoZ bakarrik kexa agertzerak.

Ondoen antolatutako auzo Sorabillakoa iruditutako zait. Auzo elkarteak auzoari eragiten dioten gaiei buruzko informazio gehiago jasotzea eskatzen zuen. Hortxe hitz egin nuen Aldundiko eta Jaurilairitzako kideekin egiten diren bilerekin gain, plenoak eta batzordeak izaten direla. Eta publikoak direla. Plenoak etsigarriak direla erantzun zidaten, dagoeneko dena batzordeetatik erabakita datorrelako. Ados nago. Interes berezikoak batzordeak dira. Herritar guztiak bertara agertzea dei egiten diet, eta baita auzoz auzo egiten diren bileretara ere.

Udal ordezkariok (politiko hitza esatea kosta egiten zait, batzuk lokatzaren pare uztera iritsi baitira), herritarren esanetara egin behar dugu, zer esan behar duten entzun eta arrazoiekin eta argudioekin erantzuna ematen ahalegindu behar dugu. Nahiz eta batzuetan herritarrek entzun nahi ez duten erantzuna izan.

Partaidetzaren filosofiari eutsi nahi dio gobernuak

Auzoz auzoko bileren balorazioa “oso ona” da Udal gobernu taldearentzat, euren asmo ez gain herritarren iritziak, ekarpenak eta kexak jaso ahal izan dituztelako: “Mahai-gaietan jarri ditugun 50 neurriez gain, etxeko lan eta behar berrien zerrenda jaso dugu; horiek guztiak gure egitekoen zerrendan jasoko ditugu orain eta, behar bezala aztertu ostean, irtenbide bideragarriak au-

rrera eramatea espero dugu”. Bilerak amaituta, Udal gobernuak partaidetzaren filosofia berretsi nahi du: “Batzuetan gozoak ez diren gauzak entzun behar badira ere, udal politika herritarrei hurbiltzea guztiz positiboa iruditzen zaigu. Zentzu horretan, parte-hartze dinamikak eta bitartekoak ugaritu behar ditugula uste dugu eta horretan jarriko dugu gure arreta. Udal gober-

nuak parte-hartzea sustatzeko ezinbestekoa iruditzen zaigun *Partaidetza ordenantza* osatzeko konpromisoa hartzen du eta, onartzearekin batera, baita martxan jartzea ere. Ezinbestekoa da demokrazia ordezkatzailetik demokrazia parte-hartzailerako bidea jorratzen segitzea, Andoain denon artean garatzea baita, ongizateari begira, biderik zentzudunena”.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza

Andoaingo Eskola Kirola martxan da



Aaron Bachiller graffitigilea lanean, Ondarreta ikastetxeko ekitaldian.

Martxan dago berriro Eskola Kirola ikastetxeetan, Allurralde Udal Kirol Patronatuaren eta herriko kirol elkarten laguntzarekin egiten dena. Ikasturte hnetan, dena, 300 haur arituko dira. Banakako kirolen artean aukera zabala dute: atletismoa, eskupilota, pala, zesta punta, gimnasia erritmikoa, ju-

doa, karatea, igeriketa, txirindularitza eta golfa.

Taldeakako kiroletan aldiz haur guztiak hiru kiroletan ikasi eta arituko dira ikasturtean zehar. Aurreko larunbatean ekin zioten ekimenari eta bertan Aaron Bachiller graffitigile andoaindarrak, Kirola eta Euskara biltzen dituen grafitia egin zuen.



Aita Larramendi ikastolako kideak Ondarreta ikastetxean.



La Salle Berrozpe ikastetxeko kideak.



Ondarreta ikastetxeko kideak.

Urte batetik bestera bikoiztu egin da parte hartzaileen kopurua

Motor hotsen sukarraldia



Gipuzkoako bazter guztietatik etorritako motozale ugari joan zen biltzen Zumea plazan, goizean goizetik.

Pozik agertu dira Andoaingo Motorzaleak elkartek kideak, ikusita zenbateko arrakasta eduki zuen **Motorfest** larunbateko ekitaldiak. Ez zuten espero inondik ere horrenbeste motozale hurbilduko zirenik, ia berrehun lagun. Lautik bat andoaindarra izan zela esan daiteke.

Iñaki Pascual antolaketa lanean jardun duenetako batek adierazi duenez, "ahalegin handia izan da egun osoko jaia prestatzea, baina merezi duelakoan gaude. Iaz hasi ginen egun honekin, eta aurtun bikoiztu egin zaigu partaidetza, eta horrek animoak ematen dizkigu jarrai dezagun etorkizunean".

Gipuzkoako bazter guztietatik etorritako motozale ugari joan zen biltzen Zumea plazan, goizean goizetik. 10:00etan abiatu ziren tropelean, eta Nafarroako iparraldeko hainbat herrietan barrena txangoa egin ostean, Goiburu auzora igo ziren, herri



Ia berrehun lagun bildu zen motorzaleen ospakizunean. Lautik bat andoaindarra zen, antolatzaileek emandako datuen arabera.

bazkaria baitzeukaten zain. Arrasaldean, tertulian jarraitu zuten batzuren batzuk, eta besteek auzoko plazan bertan antolatutako jokoetan parte hartze- ra animatu ziren. Ilunabarrean, berriz, Lemon Twist eta Overloud musika taldeen kontzertua heldu zen.

Zaletasun berbera partekatzen duten motozaleak elkar ezagutzeko, edo eta lehendik ezagutzen zirenak harremanak estu-

tzeko balio izan zuen egunak, azken finean.

Atsekabetzeko datu bakarra, moto irteeran gertatu zen bi erriko gertatu baitziren, Pascuelek baieztatu duenez: "Azalean urrarturen bat besterik ez zuen jasan motozale batek lehenengo istripuan; bigarrenkoa, ordea, zerbait larriagoa izan zen eta moto gidaria ospitalera eraman behar izan zuten lau saihest-hezur hautsita".

GAZTE EGUNA ANDOAINEN



Beste herrietan bezala, Andoainen ere Gazte eguna antolatu zuten. Aldarrikapen giroan jarduera asko antolatu zituzten aurreko larunbatean, besteak beste, manifestazioa edota kontzertua.

Eskaintza berezia



Andoaindarrak 400 ekimeneko materiala merke erosteko aukera eskaintzen ari dira. Hain zuzen ere, kamisetak 5 eurotan eros daitezke: Kamisetak heldu eta haurrentzat, txurian eta beltzean S, M, L, XL eta XXL neurrietan. Haurrentzat: 3-4 urtetatik 11-12 urteraino.

KIROL ALBISTEAK: ESKUBALOIA, URNIETA 2015-16

SENIOR MAILA
MUTILAK

Iosu Irigoien
Josu Arruarte
Victor Rodriguez
Gorka Vicente
Gorka Urigoitia
Xabat Salaberria
Erlaitz Arrieta
Iñaki Ibañez
Eneko Salaberria
John Sanchez
Julen Garcia
Javier Fraisoli
Peru Lizaso
Beñat Senperena
Iosu Pagola
Eneko Urruzola
Martin Barrientos

Entrenatzaileak:
Jokin Jimenez
Patxi Morandeira



SENIOR MAILA
NESKAK

Amaia Jauregi
Irati Zinkunegi
Elixane Urkijo
Uxue Sarasua
Cristina Urdangarin
Maialen Beristain
Oihane Sánche
Zuriñe Cao
Sarah Alfonso
Amaya Gallego
Irati Gallardo
Naiara Beldarrain
Maria Salaberria
Maidor Dorronsoro
Maialen Izagirre

Entrenatzaileak:
Victor Rodriguez
David Belver

JUBENIL MAILA
MUTILAK

Joseba Perez
Gorka Miranda
Xabier Beldarrain
Mikel Martinez
Ander Berrotaran
Joxe Mª Manso
Unai Urdangarin
Sacha Frutos
Ioritz Lizeaga
Iñigo Perez

Entrenatzaileak:
Xabier de la Mota
Amaia Jauregi



KIROL ALBISTEAK: ESKUBALOIA, URNIETA 2015-16

JUBENIL MAILA NESKAK

Maite Galfarsoro
Amaia Reveriego
Garazi Mujika
Alba Quel
Ane Fernandez
Maddi Ruiz
Marina Barrientos
Ianire Senperena
Leire Moreiro
Garazi Ramos
Irene Alcaide

Entrenatzaileak:
Andoni Ruiz
John Sanchez



KADETE MAILA MUTILAK

Unai Zamarreño
Gaizka Gonzalez
Joseba Errazkin
Odei Jimenez
Yeray Merideño
Imanol Pagola
Iker Paricio
Unai Perez
Alex Gago
Alejandro Vazquez
Iosu Gomez
Jon Tolosa
Urko Carmona
David Blanco
Jon Martin

Entrenatzailea:
Iosu Irigolen
Gorka Vicente

KADETE MAILA NESKAK

Anne Cao
Uxue Mujika
Nagore Urruzola
Maddi Ibañez
Maidar Cambra
Maddi Duran
Ane Estevez
Anne Elustondo
Idoia Moreiro
Maddi Iguaran
Lorea Diaz
Olaia Izagirre
Maite Bengoetxea

Entrenatzaileak:
J. Manuel Martin
Alex Rodrigues



KIROL ALBISTEAK: ESKUBALOIA, URNIETA 2015-16

INFANTIL MAILA
MUTILAK

Beñat Errazkin
Peru Sanchez
Ander Elustondo
Urko Perurena
Paul Gonzalez
Liher Unanue
Aiert Labaien
Manex Lezaun
Marcos Carballeda
Ioritz Iribar
Alex Bergol
Oier Duran
Amets Karrera
Ekain Etxeberria
Gaizka Izagirre
Julen Lizeaga
Erik Elorza
Luken Lopez

Entrenatzaileak:
Eneko Salaberria
Borja Rodriguez



INFANTIL MAILA
NEKAK

Nerea Salaberria
Malen Morandeira
Lucia Frutos
Hirune Moreda
Angela Arias
Aintzane Elozegi
Maria Fierro
Naroa Morales
Paula Dominguez
Nahia Lopez

Entrenatzaileak:
Carlos Fierro
Xabat Salaberria
Juan Mª Morales

INFANTIL MAILA
NEKAK

Haizea Olaria
Natalia Gordesio
Haizea Lekuona
Ainara Mujika
Oihane Cao
Marta Campos
Uxue Osa
Maddi Pascual
Oihane Pagola
Amaia Mellado

Entrenatzaileak:
Kontxi Estevez
Beñat Senperena
Iñigo Perez





KIROL ALBISTEAK

Leizaran taldeko hiru kide ohien gurasoei erantzuna

Leizaran eskubaloï klubak erantzuna eman die aurreko astean **Allurralde Kirol Patronatuari** gutuna igorri zioten jubeniil mailako hiru jokalarien gurasoei, eurek ziotena gezurtatzeko: “Klubak ez die hiru familia horiei Zarautzen edota Usurbilen jokatzeko euro bakar bat ere kobratu. Ez kasu honetan, ezta besteetan ere. Beste gauza bat da familia horiek zer nolako akordioetara

iritsi diren beste klub horiekin”. Klubak gaineratu nahi du euren malgutasunari esker hiru jokalarï horiek nahi duten klubetan jokatzen ari direla. Klubak ez du ika-mikan sakondu nahi eta gaiari buruz hitz egiteko aukera egongo dela adierazi du. Zehazki, datorren azaroaren 12an Ubitarte futbol zelaiko gelan egingo duten bileran. Arratsaldeko 18:30etik aurrera.

Ganbara, igoera postuetan

ANDRAITZ 55-64 GANBARA SENM Garaipen ona, zazpi jokalarïekin erakustaldi fisiko aparta egin zutelako. Kanpoko jaurtiketetan dago arrakastaren gakoa. Hiruko 8 saskiratzetxe egin zituzten. Bi garaipen hauekin igoera fasera gerturatzaren ari dira.

ASTEBURUAN ANDOAINEN

GANBARA JUBM-BKL
Larunbata, 24. 12:15.
GANBARA SENM-EASO
Larunbata, 24. 19:15.

SAILKAPENA, Seniorrak:

1. Ganbara	6
2. Mutriku	5

Garaipen ona Urnietarentzat



PULPO 18
URNIETA BALERDI 21

Senior mutilak.

Mailari eusteko lehian, Urnietak garaipen ona lortu zuen Zumaian. Atsedendian berdinketarekin baziren ere, urnietarren defentsa onak bere fruituak eman zituen. Datorren igandean aurkari zailagoa izango du etxe-

an. Bergara taldea hain zuzen, 12:00etan hasita.

URNIETA QUEL 22
UROLA 9

Jubenil neskak.

Garaipen eroso eta etxeko taldearentzat, maila apalagoa duen aurkariaren aurka. Markagailua oso adierazgarria da.

Pilota partidak Urnietan

Gipuzkoako txapelketan bi partida jokatuko dira Urnietan, larunbatean arratsaldeko 15:30etik aurrera:

Urnietak 1- Zarautz 2
Gomazko paleta, seniorrak.
Urnietak- Aloña Mendi 1
Eskuz binaka, kadeteak.

Julen Loitegi munduko kopako txapeldun Mexikon

Guadalajara estatuan senior mailako bikotekako txapelketan txapeldun izan da urnietarra, estatu mailako ordezkari gisa. Selektzioak lortzen duen lehen aldia da, eta aurten gainera profesional ohiek parte hartzeko aukera izan dute. Loitegik esaterako Frantziarekin lehiatu zen Arizmendi garaitu zuen final aurrekoan. Hautatzaileak ligaskara lau pilotari eraman ditu eta laurek jokatuko



Julen Loitegi Intza Cabrera eta Irati Goikoetxea herrikideekin, Guadalajaran bertan.

dute. Loitegik final aurrekoa jokatuko zuen Larrea errioxarrarekin batera, finala aldiz ez. Mexikoren aurkako finala, pilotalekua jendez lepo zegoela, estatuko selektzioak irabazi zuen. Partida amaitzean lau pilotariek elkar besarkatuta garaipena ospatu zuten. Loitegi txapelketako gazteena izan da, eta ia ziurra da bere parte hartzea Bartzelonako Munduko txapelketan. Zorionak Julen!

Horrela jarraituta, garaipenak iritsiko dira

LEIZARAN ERNIO 27
DONIBANE 35

Senior mutilak.

Donibanetarrak iazko ligako txapeldunak dira, eta oso gogor aritu ziren hasieratik. Poliki poliki aldea ateratzen joan ziren markagailuan.

LEZO 24
LEIZARAN 19

Senior neskak.

Senior emakumezkoek ere ez dute oraindik punturik lortu.

LEIZARAN 22
EGIA 28

Jubenil mutilak.

Partida estua, baina azkenean kanpotarrek eraman dituzte jokoan zeuden bi puntuak.

LEIZARAN 22
EIBAR 28

Jubenil neskak.

Talde nagusien artean, garaipena eskuratu zuen bakarra. Ha-



ELKARTASUNEZKO KEINUA

Urriaren 19an bularreko minbiziaren aurkako nazioarteko egunaren bezperan, Leizaran eskubaloï taldeko jokalarï guztiek lazo arrosa

soinean eraman zuten, gaitxotasun hori jasaten edota aurre egiten ari diren emakumei babesa adierazteko. Keinu polita, zalantzarik gabeko.

sieratik gailendu ziren. Bigarren zatian, eibartarrek defentsa au-

rreratu zuten baina hori ere alperrikakoa izan zen.

Futbol emaitzak

ERREGIONAL OHOREZKOAK

6. jardunaldia:

Euskalduna 1-1 Ostadar

Sailkapena:

1. Tolosa	18 puntu
2. Anaitasuna	14 puntu
5. Euskalduna	11 puntu

7. jardunaldia:

Ordizia-Euskalduna

Urriak 24. 16:30.

PREFERENTE MUTILAK

5. jardunaldia:

Lengokoak 1-1 Urnietak

Sailkapena:

1. Baskonia	13 puntu
2. Añorga	12 puntu
5. Urnietak	11 puntu

6. jardunaldia:

Urnietak-Trintxerpe

Urriak 24. 16:00.

ERREGIONALA NESKAK

4. jardunaldia:

Urnietak 4-1 Touring

Sailkapena:

1. Urnietak	12 puntu
2. Allerru	7 puntu
3. Intxaurdi	5 puntu

5. jardunaldia:

Amara Berri-Urnietak

Urriak 24. 15:30.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com **Webgunea:** www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzailerak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 22TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

■ **El desconocido.**

Larunbata, 24. 19:30/22:00. Igandea, 25. 21:30. Astelehena, 26. 19:30/22:00.

■ **Regresion.**

Ostirala, 30. 22:00. Igandea, 1. 19:30/22:00. Astelehena, 2. 19:30/22:00. Haurrentzat: **Vacaciones** Larunbata, 31. 17:00. Igandea, 1. 17:00.

Deialdiak

Andoain

- **Caritasek** irakasle boluntarioak behar ditu, laguntza klaseak emateko. caritasandoain@yahoo.com
- Argindarraren faktura ordaintzeko laguntza eskatzeko epea zabalik dago. 08:30-13:00. Anbrosia Olabide. Azken eguna: Urriak 30.
- **“Andoain Hiri Txartela”**, erosketak egiteko edota Udal zerbitzuetara iristeko aukera berria. Salkinen eta Udalaren eskutik, dako txartela da. Rural Kutxako bulegoetan, Udal bulegoetan eta Salkineko dendetan eskuragarri.

Farmaziak

Eskualdea

- Guardiako farmaziak. **Andoain:** Gorospe, asteburu osoa. **Urnietan:** Aldabe, asteburu osoa. **Eskualdea, gauzez:** Etxebeste. Elkano, 9. Hernani.

Lehiaketa

Andoain

- **“Andoain laburrean”**, film lehiaketa. Gazte eta profesional ez direnei zuzendua. Info: andoainarrak400.eus

Hitzaldia

Urnietan, Lekaio

- Bake programaren aurkezpen ekitaldia. Bilerak irekia. 19:00. Urriak 22, osteguna.

Pailazoak

Andoain, Bastero

- **“Txutxupe”**, Txirri, Mirri eta Txiribiton. 17:00. Auditorioa. Urriak 25, igandea.

Ikuskizuna

Andoain, Bastero

- **“Azken eguzkilorea”**, Patata tropikala. 17:30. Sarobe. 3 euro. Urriak 25, igandea.

Musika

Andoain

- **Koxka** taldearen kontzertua. 22:30. Irunberri. Urriak 23, ostirala.
- **Eileen Jewell**, kantariaren emanaldia. 22:30. Bastero. Urriak 31, larunbata.
- **“Andoaindarrok egina, Andoainaren entzuna”**, Santa Zezilia eguneko emanaldia: abesbatza, txistulariak. 12:30. Bastero. 5 euro. Azaroak 22, igandea.

Ospakizuna

Andoain

- 1957an jaioakoen bazkaria. Izena eman nahi duenak 35 euro ordaindu behar ditu urriaren 23a baino lehen. 14:00. Txalakan. Urriak 31, larunbata.

Auzolana

Andoain

- **Eguzkik** auzolanean ibaia garbitzeko deia egin du. 15:30. Allurralde. Urriak 31, larunbata.

Solasaldia

Andoain, Liburutegia

- **“Lurtarra da begiratu”** liburuaren gaineko solasaldia, idazlea bera bertan izango delarik. Izena ematea Liburutegian bertan. 19:00-20:30. Liburutegia. Urriak 27, asteartea.

Ikuskizuna

Andoain, Bastero

- Toom Pak konpainiaren eskutik, birziklatutako elementuekin egindako ikuskizuna. Nagusiki, perkusio jaialdia. Azaroak 6, ostirala. 21:30.

Erakusketak

Andoain, Bastero

- **“Bizibideak”**, Gartxot Arregiren eskutik. Azaroraren 14ra arte.
- **“400 txokotatik euskarara”**. Irudiak, kontakizunak eta ikus-entzunezkoak Andoaindarrek 440 ekimenaren eskutik. Azaroraren 13tik aurrera.

Irteerak

Urnietan

- Burgosera irteera, Denda Berriren eskutik. 07:15. Denda Berri. Urriak 24, larunbata.

Andoain

- Santa Krutz erretirodunen elkarteak Olite eta Azagra aldera txangoa antolatu du. 09:00. Olagain. Urriak 31, larunbata.

Plenoa

Andoain

- Ordenantza fiskalak. 19:00. Udaletxea. Urriak 22, osteguna.
- Udalaren osoko plenoa. 19:00. Udaletxea. Urriak 29, osteguna.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK




ANDOAIN

ZORIONAK



ANDOAIN

ZORIONAK



ANDOAIN

■ **ZORION AGURRAK:**

Aiurri astekarian, oso erraza da. Eta dohainik. Bidali garaiz, eta ondo zehaztu herria ere. Emaillez: andoain@aiurri.com urnieta@aiurri.com Whatsapp bidez: 619 163 537.

OHARRA

Datorren astean ez da Aiurri astekaria argitaratuko. Hurrengoa azaroaren 5ean banatzen hasiko gara.

Herrien eguna larunbatean, ospakizuna Nafarroa plazan



Hogar Extremeño eta Triana elkartearen eskutik XIX. herrien eguna ospatuko da larunbat honetan Nafarroa plazan. “Aniztasun kulturalak aberasten gaitu” lelopean, egun osoko festa iragarri dute herriko kultur eragileek parte hartzearekin.

URRIAK 24, LARUNBATA

- 10:00-20:00** Errioxa, Andaluzia eta Extremadurako produktuen azoka.
- 11:45** Kalejira txistularien banda, Gora Kaletxiki, Soinuak eta Alberto Agirre abesbatzarekin.

- 12:00** Pregoia Goikoplazan.
- 12:00-13:00** Herrietako musika eta dantza Nafarroa plazan: Urki.
- 13:00** Ballet klasikoa eta garaikidea: Azelain.
- 13:30** Haur eta helduentzat tailerra Axeri dantza taldearen eskutik.
- 16:00-17:00** Zunba maratonia Leire Rekalde eta Virginia Francoren eskutik.
- 18:00** Musika eta dantza emanaldia Trianaren eskutik.
- 18:30** Areto dantza, danta latinoia Amaia Gonzalez dantza eskolakoaren eskutik.



ORAIN **GIPUZKOA**

Egiteko ordua da, Gipuzkoa aktibatzeko ordua, geuri eta gainerakoei zertarako gai garen erakusteko ordua.

Betidanik egin izan dugu. Historian zehar gauza handiak egin izan ditugu sinetsi eta batu garenean. Berriz egiteko ordua da. Liderrak gara industrian, enpresa-eredu aitzindariak asmatu ditugu, I+G+Bn liderrak gara... gipuzkoarrak gara.

Aberastasunak sortzen badakigu, baina baita banatzen ere. Gure lurraz harro, baina Europara eta mundura zabalik. Tinkotasunean sinesten dugu, baina inoiz ez inposaketan. Esfortzua dugu lelo, baina baita elkartasuna ere. Estatu mailan liderrak gara ongizatean, ekonomian, gizarte justizian eta berdintasunean. Gipuzkoa gara. Eta ez dugu zarata handirik egiten.

Apaltasunez, lan eginez, arduraz aritzea eta errespetuz jokatzeko. Kexak eta aitzakiak alde batera utzi behar ditugu. Frustrazioa iraganean geratu da. Zurikeriak iragana dira. Geldirik egotea iraganeko kontua da. Ezin dugu jarraitu arazoei bueltaka. Hori guztia atzoko gauza da.

Orainari buruz hitz egiteko unea da. Etorrizuna orain da eta etorkizuna eraikitzeke erabakiak orain hartu behar ditugu. Gure lurra zaintzea orain da. Elkartasuna orain da. Lan egitea, laguntzea, elkarbizitzari ekitea, adostasuna orain dira.

Orain da Gipuzkoa.
Eta orain gaur da.

